

## APARTEKO LANSARIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Eusko Jaurlaritzak eta erakunde patronalek abenduko aparteko pagen inguruan sortutako egoera nahasiaren aurrean STEE-EILAS sindikatuak zera adierazi nahi du

1.- Dirudienez, aurreko gobernuaren arabera "... el no pago de la paga extra a los funcionarios docentes conlleva la minoración del componente del gasto de personal de los módulos de los centros concertados en una cuantía similar". Horrekin adierazi nahi da ikastetxeek jasotzen dituzten hezkuntza itunetan langileen lansariei dagokion zatia proportzio berean murrizteko asmoa dutela. Hori egia izanda ere, duela gutxi Tribunal Gorenak berretsi duen bezala **gure enpresak behartuta daude indarrean dagoen Hitzarmeneko lansaria -aparteko lansariak barne- betearaztera.**

2.- Administratiboki, egoera askoz konplexuago da. Batetik, ordainketa eskuordetuan dauden langileek (irakasleak, Haur Hezkuntzako 2 ziklotik DBHraino) abenduko aparteko paga kobratuko dute, hilerok bezala administratiboki zuzenean, arrazoi teknikoengatik ezinezkoa delako hura ordaintzea bertan behera uztea. Bestetik, ikastetxeek ordainketa eskuordetuan ez dauden beste langile guztiei ordaindu behar diete abenduko aparteko lansaria. Are gehiago maila hauei dagozkien 21012ko hezkuntza itunetan ezarritako diru kopuruak ordaindu direlako.

3.- Argi dago kasu batean zein bestean, administrazioak badituela orain ordainduko diren lansariak geroago berreskuratzeko erak. Kasu horretan enpresak aterako lirake kalteturik. Patxi López-en gobernuak hartutako jarrera osatu berri den Gobernuak berretsi beharko du, kontuan hartuta eskuduntzen inguruko gatazka planteaturik dagoela gobernu zentralarekin eta, gainera, aparteko lansarien ordainketari buruz ez dagoela behin betiko sententziarik.

STEE-EILAS-ek salatzen du aurreko gobernuaren jarrera, Madrileko murrizketa berriak legeak dioenatik haratago ezartzen dituelako. Halaber, argi eta ozen eskatzen diegu Itunpeko Irakaskuntzako patronalei bere erantzukizuna har dezatela, eta ordain diezaitela egindako lanagatik dagokien lansaria euren langileei, indarrean dauden lan hitzarmenek ezartzen duten moduan.

***Hezkuntzan STEE-EILAS***

**ARABA:** Eulogio Serdan, 5      01012 Gasteiz      ☎ 945 14 11 04      📠 945 14 43 02      [araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)      48003 Bilbao      ☎ 944 10 02 98      📠 944 10 13 60      [bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)      20015 Donostia      ☎ 943 46 60 00      📠 943 45 36 27      [gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (Iorja)      31001 Iruñea      ☎ 948 21 23 55      📠 948 22 97 90      [nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)